



UDA 2023 AISIALDI ETA KIROL ESKAINTZAK

- **Gazteria Sailak** sustatutako "Leitzarar abentura" ekimena nerabeei zuzenduta egongo da, eta txikienek "Goazen jolastera" izango dute. Maiatzaren 4an irekiko da lehenengo jarduerarako inskripzioa, eta maiatzaren 15ean bigarreneko.
- **Jarduera Fisiko eta Kirol** lansailak UDA 2023 programa antolatu du, eta ekainaren 26tik uztailaren 28ra bitartean egingo da. Maiatzaren 4an irekiko dira bertako inskripzioak.

Udalak prest dauka jada gazteentzako eta haurrentzako udako aisialdi-eskaintza, aurreko urteetako proposamenari jarraiki, eta *Goazen jolastera*, *Leitzarar Abentura* eta *Kirol Jarduerak* ekimenetan banatuta, adin desberdinei zuzenduta.

Leitzarar abentura udaleku irekiak dira Leitzarar bailaran bertan, eta, izenak berak aditzera ematen duen bezala, natura, kirola eta aisialdia batzen dituzte orientazio-ariketarik, bizikleta-irteerarik, piraguismoa, eskalada, arku-tiroa edo plogginga jarduerekin. **2009 eta 2012 artean jaiotako gazteei** zuzenduta dago, eta bi txandatan banatuko da: uztailaren 3tik 14ra eta uztailaren 17tik 28ra. Astelehenetik ostiralera, ordutegia 9:30tik 13:00ra izango da. Prezioa 80 eurokoa da (65 euro txanda berean bi anai-arrebek izena ematen badute) eta izen-ematea maiatzaren 4tik 14ra egongo da zabalik. Plazak zozketa bidez esleituko dira maiatzaren 23an, inskripzioak plaza kopurua gainditzen badu, Guztira, 4 talde osatuko dira, taldeko 9 nerabeekin.

Goazen jolastera jarduerari dagokionez, udaleku irekiak euskaraz ere badira, **2015 eta 2020 urteen artean jaiotako** haurrei zuzendutakoak; eta tailerrak, jolasak, eskulanak, txangoak, e.a. izango dira. Jarduera hau ere bi txandatan banatuko da (ekainaren 26tik uztailaren 14ra eta uztailaren 17tik 28ra). Izen-ematea maiatzaren 15etik 26ra egongo da zabalik eta zozketa, berriz, parte-hartze maximoa gaindituz gero, maiatzaren 29an. Prezioari dagokionez, lehenengo txandak 80 euroko prezioa izango du eta bigarrenak 49 eurokoa (bi anai-arreben kasuan, 65 euro lehenengo txandan eta 40 euro bigarrenean). 264 plaza egongo dira, 24 taldetan banatuta.

Bestalde, Petri Romero, Jarduera Fisikoaren eta Kirolen zinegotziak adierazi duenez: "Jarduera Fisikoaren eta Kirolen udal Zerbitzuak Uda 2023 programan izena emateko epea irekiko du maiatzaren 4an", eta ekainaren 26tik uztailaren 28ra egingo dira. Gazteenentzako jarduerak hauek dira: **Igeriketa** (2011 eta 2019 artean jaiotakoentzat), **Goizean kirolean** (2011 eta 2015 urteetakoak), **Tenisa** (2007 eta 2015 urteetakoak) eta Bizikleta+kirola (2007 eta 2010 urteetakoak). Helduentzako jarduerak dira: **K-stretch**, **Yoga**, **Aquagym**, **Pilates**, **Zunba-fit**, **Spining**, **Kross training**, **Pump** eta **GAP**.

Izena emateko data maiatzaren 4tik 14ra izango da. Behin-behineko zerrendak eta alegazioak: maiatzak 16-17. Zozketa, maiatzaren 19an, eta plazak eta ordainketak berrestea, maiatzaren 24tik 31ra. Plaza libretean izena emateko epea ekainaren 5etik aurrera izango da.



Andoaingo Udala

Izen-emateak online egin daitezke, Jarduera Fisikoaren eta Kirolen Zerbitzuaren webgunean (<http://kirola.andoain.eus>) edo Allurralde kiroldegiko bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 9:30etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Izena emateko epetik kanpo jasotako eskabideak itxaron-zerrendan sartuko dira.

INFORMAZIOA

Udako jardueren eskaintzari buruzko informazioa gehiago lortu ahal izango da Udalaren webgunean **www.andoain.eus** edo telefonoz: *Leitzaran Abentura* 943 304 221, *Goazen jolastera* 660 103 636, Kirol eskaintza 943 300 147.

Andoain, 2023ko apirilaren 21a.